




KOLOREEN MINTZAIRA

12.- Koloreen nahasketa(3)

Gida didaktikoa

12.- Koloreen nahasketa(3)

Sarrera

Azken hamarkadan, inoiz baino gehiago hitz egin da koloreez. Horregatik, agian, gaur egun, koloreek leku nabarmena dute irakasgaien plangintzan. Hala ere, kolorearen gaineko ezagutzetan sakondu nahi dutenek, gehienetan, ez dute argudio eta adierazpenen artean lotura handirik aurkitzen. Arazo horri lexiko aldetik dagoen zehaztasun eza gehitu behar zaio.

Bideo seriea DBHko laugarren kurtsoa ikasleentzat pentsatutako materiala da. Bere xedea koloreak nola eratzen diren, nola jasotzen dituzten gure begiek eta nolako adierak izan dituzten historian zehar erakustea da.

DBHko gazteak, oro har, argiak material duen eragina eta ikusmenaren mekanismoak multzo bateko alderdiak direla egiaztatzeko ez dauka behar beste elementu. Gu, koloreez hitz egiteko, ikusten dugunaz mintzatuko gara, ez molekulez ez irradiazio elektromagnetikoez.

Bideoen xedea ikaslea koloreen munduan murgiltzea da, ez kontzeptu soilak ematea. Irudiez baliatuko gara, kontzeptu zientifikoak erakusteko eta indartzeko.

Bideo bakoitzak, kontzeptu teorikoen azalpenaz gain, fisikarekin zerikusia duten esperientzia erraz batzuk proposatzen ditu. Zenbait material eskuz erabiliko ditugu estetikaren munduan murgiltzeko. Horren xedea ikasleari prozesu sortzaileetan parte hartzeko gogoia sustatzea da.

Oinarrizko curriculum diseinua:

-Gaur egun informazio gehiena begietatik jasotzen dugu. Egutero irudi armada erraldoiak erasotzen digu etengabe. Hori dela eta, Plastika eta Ikus-Hezkuntza arloak menpekotasuna eta pertzepzio pasiboa gainditzen lagundu ez ezik, informazioa moldez analizatzeko bitartekoak ere eskaini behar ditu.

-Ikasleak mezuak hartu bezala igortzen ditu, hau da, inguruneak eskaintzen dizkion esperientziak hauteman eta, burutzen dituen ekintzen bidez, zerbait adierazten du; Plastika eta Ikus-Hezkuntzak komunikatzeko gai den bi norabideko mintzaira hori ezin du ahaztu.

HELBURU OROKORRAK

KOLOREEN MINTZAIRA seriearen helburuak honako hauek dira:

- 1.- Irudien mintzairaren kodeak, terminologia eta prozedurak erabiliz, ikaslearen komunikatzeko aukerak aberastea.
- 2.- Estereotipoak eta konbentzionaltasunak gaindituz, norberaren irizpide pertsonalei eta egiteko moduari eutsiz, besteen adierazpen plastikoak errespetatzea eta preziaztea.
- 3.- Plastika eta Ikus-Mintzairak bizipen, sentimendu eta ideien adierazpide gisa duen garrantzia baloratzea eta norberaren oreka eta ongizaterako lagungarri dela konturatzea.
- 4.- Beste pertsonetikiko harremanetan malgutasun, elkartasun, interes eta tolerantzia jarrerak azalduz, inhibizioak eta aurreiritziak gaindituz eta ezaugarri pertsonal edo sozialek eragindako diskriminazioak gaitzetsiz talde jardueretan parte hartzea.
- 5.- Obra bat egiteko prozesuaren faseak indibidualki edo elkarlanean planifikatzea, lortu nahi diren helburuei egokitzeko bere osagaiak aztertzea eta, amaitzerakoan fase bakoitza berrikustea.

EDUKIAK

1. MULTZOA: Behaketa eta pertzepzioa.

Kontzeptuzko edukiak

- Gertakari artistikoa eta irudia, orokorki hartuta.
- Irudia / errealitatea.
- Irudia / adierazpena.
- Irudiaren ezaugarriak:

ikonotasuna / abstrakzioa / agerikotasuna / konplexutasuna.

Prozedurazko edukiak

- Adierazpen eta errepresentazio moduen behaketa eta analisia.
- Formaren eta irudiaren artean finka daitezkeen aldeak atzematea.
- Irudi mentalak barneratzeko eta lantzeko pentsamendu sortzailea erabiltzea.

Jarrerazko edukiak

- Norberaren sentipenen aurrean gogoetazko jarrerak.
- Norberaren adierazpen artistikoak nahiz besteenak, banakakoak nahiz kolektiboak, oraingoak nahiz beste garaietakoak analizatu eta baloratzeko interesa.

2. MULTZOA: Plastika eta Ikus-Mintzaira

Kontzeptuzko edukiak

- Irudiaren osagarriak: forma, kolorea, ehundura, errepresentazioa.
- Irudiaren egituratzaileak: konposizioa eta elementuen arteko erlazioak.
- Sormen prozesuak: motibazioa, proiektuen lanketa, sormenaren gauzatzea.

Prozedurazko edukiak

- Kolorea, argia eta formak sortzeko erabiltzen dituzten konposizioen gauzatzea.
- Hainbat garaitako obra plastikoaren konposizioen behaketa eta analisia.

Jarrerazko edukiak

- Lan grafikoei ekitean jatorrizko soluzioak bilatzeko jarrera positiboa.
- Artelanen zein naturaren barne antolaketa ezagutzeko interesa.
- Lan prozesuko etapak zuzen erabiltzeko interesa eta disposizio aktiboa.
- Lankideen iritzi eta lanei buruzko begirunea eta interesa.

3. MULTZOA: Adierazpen eta komunikaziorako bide eta teknikak

Kontzeptuzko edukiak

- Euskarriak, materialak eta tresnak.
- Tekniken adierazpen zentzuak.
- Irudi finkoaren zenbait adierazpide: marrazkia, pintura, modelazioa, fotografia...

Prozedurazko edukiak

- Teknikak aplikatu eta esperimentatu, adierazpen baliabideak eta estetika aukerak menperatu lortzeko.
- Teknika bakoitzak eskatzen dituen lanabesak erabiltzeko moduak ikertu, euren aukerak baliatzeko.

Jarrerazko edukiak

- Materialak, gela, lantegia zein laborategia txukuntasunez eta garbitasunez erabiltzeko interes
- Tresna, material eta euskarriak erabiltzeagatik interesa eta jakin-mina.

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1.- Ingurunetik, begien bitartez jasotzen ditugun mezuei esanahiak bilatzea, beste testuinguru batean kokatuz, elementu esanguratsuetan aldaketak eginez eta beste adierazpen mintzaira batzuk erabiliz.

Irizpide honetan, konponbideak aurkitzeko ahaleginean izandako esperientziek emandako datuen arteko erlazioak finkatzen laguntzen duten pentsaeren garapena ebaluatzen da.

2.-Formak antolatzerakoan, estereotipoak gainditzen duten; interesgunea, erritmoa, pisua, tamaina, oreka eta horrelako kontzeptuak kontuan hartzen duten eta emaitza eskema, zirriborro eta maketen bidez bistaratzen duten konposizioak lortzea.

Irizpide honen bitartez, ikaslea espazioan nahiz planoan konposizio arazoak konpontzeko gai den ebaluatu nahi da.

3.-Lan faseen planifikazioa eta talde lana eskatzen duten artelanak egiterakoan taldean parte hartzeko joera izatea.

Taldekiddeen integrazioa, solidaritate jarrerak, malgutasuna eta arauetikiko begirunea ebaluatzen dira. Artelan bat egitean, etapak logikaz antolatzeke duen gaitasuna ere baloratuko da.

4.- Adierazpen plastikoaren oinarritzko kontzeptuez baliatuta, inguruko adierazpen artistikoak analizatzea, kultur ondarearen elementu integratzaile gisa balioetsiz eta horiei begirunea izanez.

Ikasleak, inguruko gertakari artistikoa ezagutzen duen egiaztatu nahi da; era berean, errealtatea behatzeko gaitasuna duen eta bertan parte hartzen duten adierazpen eta komunikazio elementuak atzematen dituen ere egiaztatu nahi da.

KAPITULUEN EGITURA

Kapitulu guztiek hiru zati dituzte:

1.- Lehenengoan, bideoan garatuko diren kontzeptuak aurkezten dira, aurkibide gisa, ikasleak eta irakasleak datorrenaren jakinaren gainean jartzeko.

2.- Bigarrenetan, edukiak garatu egiten dira. Berau dugu zatirik luzeena eta, bertan, kolorearen hainbat alderdi aztertzen dira.

3.- Hirugarrenari lantegia deitu diogu. Zati honetan, esperientzia batzuen bidez, ordura arte garatutako kontzeptuak birpasatuko ditugu. Lantegian proposatzen diren ariketa praktikoan bitartez, ikasleak bideoan ikusitakoa sakontzeko aukera izango du.

Noiz eta nola erabili **KOLOREEN MINTZAIRA**

KOLOREEN MINTZAIRA osatzen duten bideoek ordena zehatz eta logikoan emanak daude, errazenetik hasita.

Bideoak atalka ikustea proposatzen da. Horrela eginez gero, ikaskizunak argiago agertuko dira eta ikasleak errazago bereganatuko ditu. Ariketak galderei erantzuteko baino ikasteko moduak erakusteko egingo dira. Irakaslearen presentzia klasean garrantzizkoa da ikasleen zalantzak argitzeko.

LANTEGIA izeneko atalak, hainbat ariketa praktikoz osatua dago. Ariketak kameraren aurrean egiten dira eta lotura estua daukate atal teorikoan azaldutako kontzeptu eta bestelakoekin eta modu progresiboan erakusten dira.

OHAR GARRANTZITSUA!!!

Bideoen hasierako barrak hiru arlotan banaturik daude, erabiltzaileak telebista hobeto doi dezan. Telebista egoki doitua badauka, hobeto ikusiko ditu bideoetan proposatzen diren koloreak eta efektuak; horregatik, doitze lana astun samarra gerta litekeen arren, hartu denbora, ikuskizunak merezi du eta.

Goiko aldean, koloretako ohiko barrak daude. Barra horien tonua eta intentsitatea telebistaren kroma eta distira aginteak eraginez doitzen dira.

Pantailaren erdian, lerro zurizko sarea dago. Lerroak argi eta garbi ikusi behar dira; horretarako, telebistaren sintonizazio aginteari eragin behar zaio.

Behean, kolore zuria eta beltzez gain grisen eskala dago. Arlo hori doitzeko, telebistaren distira eta kontraste aginteei eragin behar zaie.

HIZTEGIA

Koloreen mintzaira bideo seriearen gida didaktikoan hiztegi tekniko bat emango da. Bertan, oinarritzko hitz teknikoen esanahia agertuko da, bai bideoan erabilitako hitzei dagokiena, bai mundu profesionalean erabili ohi diren hitz tekniko arruntei dagokiena. Hiztegia moldez erabiltzeko, ikasleei, bideo emanaldia hasi aurretik ematea proposatzen da, arestian emandako argibideekin batera.

12.- Koloreen nahasketa(3)

Batzuetan, buruan irudikatzen ditugun kolore konbinaketak gauzatuak ikustean, etsipen handia izaten dugu. Ez dauka zer ikusirik guk irudikatutako efektuarekin. Argizatze eskasak, markoak edota erabili dugun hondoak gure lana honda dezake.

Bideo honetan, koloreak nahasterakoan sortu ohi diren arazoak ditugu mintzagai. Lantegia atalean, irudimena lanean jartzea proposatzen da, obra indibidual bat egiteko: collage bat.

Bideoa ikusi aurretik, doitu zure telebistaren sintonia, kroma, distira eta kontrastea, gida honetako NOIZ ETA NOLA ERABILI atalean esan bezala.

KOLOREEN NAHASKETA -3-

02:00. - Sarrera.

04:35. – Koloreen nahasketa ilargiaren argitan.

06:09. – Koloreen mugimenduak.

Koloreak mugitu egiten dira.

Distiraren eragina.

Lerro banatzaileak.

10:23. - Mailaketak.

12:31. – Konbinaketa kromatikoak naturan.

15:09. – Argi efektuak.

18:11. – Ikusmenaren irrika.

20:37. – Inguru ikustezinak.

23:15. – Lantegia: irudimenari erronka.

Lantegia: irudimenari erronka.

Kasu honetan, seriean zehar ikasitakoak praktikan jartzeko, collage bat egitea eta erakusketa batean aurkeztea proposatzen da.

Collagea egiteko, lor dezaketen edozein gai erabil dezakete. Bertan euren gustuen arabera nahastuko dituzte formak, ehundurak eta koloreak.

Collagea egin ondoren, ikasle bakoitzak bere obra nola aurkeztu behar den erabakiko du. Artelana argizatutako duten argi iturrien norabidea eta haien koloreak, obraren kokapena, eta abar.

Erakusketak iraun bitartean, belarriak erne izango dituzte besteen kritikak ikasgai gisa jasotzeko; eta, mingaina zorrotz, besteen obrak modu berean, errepetuz beti, kritikatzeko.

Mailaketa degradatuak. Kolore bat beste batekin edo beste batzuekin, batez besteko jakinetan nahastuta lortutako tonuak modu ordenatuan erakusten dituen mailaketa.

Gradazioak. Mailaketak izendatzeko beste modu bat.

Gradazio monokromatikoak. Kolore bat zuriarekin nahiz beltzarekin batez besteko jakinetan nahastuta lortutako tonuak erakusten dituen mailaketa.

Argi primarioak. Nahasi gabeko argiak. Urdina, gorria eta berdea.

12. kapituluko hiztegia

LIBURUAK

¿Qué es la luz?	Heel. Guadarrama. Madrid-1968
El color del aire libre	Wels. Omega. Bartzelona-1965
Luz visible y luz invisible	Ruechardt. Labor. Bartzelona-1960
El gran libro del color	Blume. Madrid-1990
Arte y percepción visual	Arnheim. Alianza. Madrid-1979
La interacción del color	Albers. Alianza. Madrid-1979
El lenguaje del color	Sanz. Blume. Madrid-1985

Koloreen mintzaira eta koloreek ematen duten informazioa etengabe aldatzen ari da. Horregatik, goian aipatu liburuak oso garrantzitsuak izan arren, bada beste bat, gu geu egunero osatzen ahaleginduko garena. Ikasleak lantegi orduan egingo dituen ariketa eta haien gaineko oharra jasoko dituen koadernoaz ari gara. Horixe izango da, ez izan dudarik, koloreen gaineko gure ohar biltegirik onena.

KAPITULUAK

1.- Izadia eta koloreak

2.- Kolorearen teoriak (1)

3.- Kolorearen teoriak (2)

4.- Koloreen eragina

5.- Munduko koloreak

6.- Koloreen kualitateak

7.- Ikusmenaren oroimena

8.- Koloreen paleta (1)

9.- Koloreen paleta (2)

10.- Koloreen nahasketa (1)

11.- Koloreen nahasketa (2)

12.- Koloreen nahasketa (3)

Ekoizlea:

iadi

Banatzailea:



M. Ortiz de Urbina pintorea, 3
11.bulegoa
01008-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

LG.- VI-83 / 03

HEZKUNTZA,
UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA
2003-07-17